

Funtsezko baliabideak hainbat dira; beraz, kategoria desberdinetan banatu ditugu.

Hasteko, **baliabide fisikoak** daude. Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin lantegi bat behar dugu lan egiteko. Lantegi honen barruan zenbait makineri desberdin jarri beharko genuke produktua sortzeko. Gainera, materiala erosi beharko genuke baita ere produktua sortzeko. Lantegiaren barruan, bulegoak egongo lirateke, alde teknologikoa bideratzeko. Bulego horretan altzariak aparte, ordenagailu aurreratu bat beharko genuko web orrialde sortzeko eta kudeatzeko.



Beste aldetik, **giza baliabideak** daude. Gutaz aparte, zenbait langile beharko genituzke.

- Hasteko, ingenieritza elektronikoko ikasketak dituen bi edo hiru pertsona beharko ditugu zakarrontzia diseinatzeko eta garrantzitsuago, zakarrontziaren barruan dagoen skanerra diseinatzeko.
- Beste aldetik, makineria kontrolatzen duen zenbait langile ere beharko genituzke.
- Finantzaketak eramateko, diru-sarrerak eta kostuak aztertuko lituzkeen hainbat langile beharko genituzke.
- Udalekin batzarrak gu izango ginateke arduradunak, proiektua gehien ezagutzen dugun pertsonak garelako.
- Web orrialde diseinatzeko eta kudeatzeko, publizitate ikasketa egin duen pertsona bat beharko genuke.



- Azkenik, informatikari bat beharko genuke ordenagailuekin arazo larririk ez izateko edo azkar konpontzeko.

Azkenik **finantza-baliabideak** daude; hau da, nola lortzen dugun dirua:

Hasteko, mailegu bat eskatu beharko genuke, gure diruarekin ez digulako balio.

